

TXIKITTO

2008-12 • 100. zenbakia



Olentzerori
BISITAN

Berriak

Urtero bezala, aurten ere San Andres Eguna ospatu dute **Arrateko Andra Mari** ikastetxean. Urki auzoak jai giroa bizi izan zuen ostegunean eta ikasleek hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera izan zuten.

Jaialdi handia izaten da San Andres Egunekoa, egun askotako lanaren fruitua.

Goizean goizetik, ikasleek etxetik ekarritako produktuekin, tresna zaharrekin eta argazki zaharrekin azoka prestatu zuten.

Ondoren eskolan prestatutako bertso eta kanta zaharrekin emanaldi polita eskaini zuten adin guztietako ikasleek. Ohiturak era txukunean mantentzen dituztela erakutsi zuten hainbat kantu ezagun kantatuz: Hiru gizon ilustre, 'Arragueta kalia' edo 'Eibarko herria'.

Zozketen garaiak ere arrakasta handia izan zuten. Bertan, bi otar eta txerrikumea zozketatu zituzten.

Txorizo otartekoak banatu zituzten ondoren gurasoen elkarteko kideek.

Arratsaldean, herri kirolen garaia izan zen: txinga eramatea, lokotx bilketa, soka-tira, zaku eramatea...

San Andres Eguna merezi duen eran ospatu dute Andra Mari ikastetxeko ikasleek aurten-go jaiak.



Azaroaren 21ean **Aldatze** ikastetxean jaiak ospatu zen eta oso ondo pasatu zuten. Horrez gain, euren proiektu solidariarekin jarraitzeko asmoz, egun horretan irabazita-koak Perura, Trujilloko Aldatze ikastetxera, bidali zituzten.

Azaroaren 27an, bestetik, Sanandres azoka egin zuten Aldatzen ikasleek eramandako barazkiekin eta monografikoaren gaia 'euskaletan jantziak' izan zen. Arratsaldean, giroa berotzeko, barazki lehiaketa egin zuten.

Abenduaren 1ean 5. mailako 3 ordezkari Herri Irratira joan ziren gure herriari buruzko gogoetak egitera. Eta abenduaren 17an 3., 4. eta 5. mailakoak 'PIN'-era joan ziren. Txikitto!-ko lankide eta irakurleei Gabon zoriontsua eta urte berri on opa dizue Aldatze ikastetxeak!

ARGITARATZAILEA: " ...eta kitto!" Euskara Elkarteak, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776.
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte.
ERREDAKZIOA, MAKETAZIOA ETA BANAKETA: Ekhi Belar, Ainhoa Luz eta Koldo Mitxelena.

ARGAZKIAK: ...eta kitto! aldizkariako argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.
AZALEKO ARGAZKIA: Ekhi Belar.
TIRADA: 1.350 ale.
INPRIMATEGIA: GERTU koop. (Ofiati).
COPYRIGHT-A: Txikitto!
LEGE-GORDAILUA: SS-1111/96



Eibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria





Aurten ere Sanandresak heldu dira **La Sallera**, eta besteetan bezala, ikastetxea azenario, zerba, piper... etabarrez gainezka. Euriaren beldur ginen, baina azkenean zortea izan eta antolatutako guztia aurrera eraman ahal izan genuen.

4. mailakoak azaroaren 27 eta 28an Lurraskara joan ginen eta egun zoragarri bi pasa zituzten.

Gabon usaina airean somatzen dela eta 3 eta 4 urteko ikasleak Mungiaraino joan ziren Olentzeroren etxea ezagutzera. Olentzeroren arrastorik ikusi ez arren, oso hunkiturik bueltatu ziren gure txikiak.

Urkizu eskolako Mariam Jebari eta Leire Antxiak San Andres Bertso Paper Lehiaketa irabazi zuten. Zorionak!

Azaroaren 28an, Sanandresak ospatzeko, sendabelarren azoka egin zuten Urkizun eta baita jaialdi bat ere. Jende asko joan zen eta oso ondo pasatu zuten.

Abenduaren 1 eta 2an, bestetik, txontxongi-loak ikusi zituzten Coliseoan. Eta hilaren 3an, 'Euskeraren Eguna' zela-eta, Argitxok zuhaitz magikoa jarri zuen, 'Euskeraren dorrea' eraiki zuten eta txokolate goxoa dastatu zuten Urkizukoek Gurasoen Elkartearen eskutik.

Eibar-Alaves foball partidua iragartzeko, bestalde, argazki xelebreak atera zizkieten Urkizuko 3. mailakoei. Ziur polita izango dela iragarkia, 3. mailako neska-mutilak oso guapoak baitira!

Amaitzeko, Urkizu eskolaren partez, **ZORIONAK** eta **URTE BERRI ON** eibartar guztioi! Ondo pasa jaietan!



Eibarko galdere-erantouen
mahai jokua

DESKONTU TXARTELA

SALGAI Eibarko liburu
eta jostailu dendetan

3€

Zu margolari



ELURRA NOIZ AILEGATUKO DEN ZAIN NAGO,
HORRELAKO PAMPINA EGITEKO. ETA ZUEK?



ZOZOAK BELEARI	EZ DAGOENEAN EGON
HEGO HAIZEA	ETXEAN OTSO
KALEAN USO	BIHAR HAIZEAK ERAMANA
DAGOENEAN BONBON	EZKUR URTE
GAUR ESANA	IPURBELTZ
ELUR URTE	ERO HAIZEA

LOTU ZATIAK ESAERA ZAHARRAK OSATZEKO

ZONRIAEA

KALEUS LASTEPA

IGOA

ORUKARP

OSRIKLARE

ATPAAKT


KOSTAA

KAIID

KLAZID

SAN ANDRES AZOKA IKUSI DITUGUN HAINBAT GAUZA.


Denborapasak




U	J	Z	A	R	N	M	K	X	R	T	U	N
G	A	R	S	A	H	J	K	E	P	E	R	R
W	I	E	T	I	Q	I	D	R	Z	L	R	Z
E	O	L	E	N	T	Z	E	R	O	R	P	I
R	T	T	S	G	A	M	J	E	Y	T	D	Z
S	Z	R	T	E	I	U	O	G	P	J	L	A
L	A	E	A	R	O	L	R	E	U	U	P	R
I	S	D	L	U	R	I	G	A	U	T	O	R
U	Y	C	P	A	R	O	H	K	K	I	R	A
V	J	H	E	J	U	K	K	T	L	O	T	A
Z	U	H	A	I	T	Z	A	G	O	H	U	C
I	N	T	Z	A	U	R	S	A	L	T	S	A
B	A	R	G	I	A	K	B	J	U	B	A	N

GABONETAKO 10 SINBOLO, OHITURA, JANARI...

PUZZLEA



ION ANDER URKIOA
40 maila



labirintoan abenturak

Bazen behin, arratoi eta untxi bat. Arratoia Max deitzen zen eta untxia Yak. Hitz egiten zeuden eta bere herriko labirintoan sartu

ziren.

Orduan, Maxek Yakeri esan zion:

-Zer egingo dugu?

-Gure ahalmenak erabiliko ditugu- erantzun zion Yakek.

Max arratoiak oso usaimen ona zeukan eta egindako bidea usain-




tzen hasi zen. Yak untxia zenez, izkina guztietatik begiratzen zuen. Gero, labirintoaren erdira heldu ziren eta kartel batean jartzen zuen:

‘Labirinto erdira heldu zarete’ eta parentesi artean eta hizki txikietan jartzen zuen: ‘kar, kar’.

Azkenean, kanpora heldu ziren baina konturatu ziren herriaren beste aldean zegoela euren etxea. Eta herrian 848.246 lagun bizi ziren, pentsa!

Handik aurrera zorionekoak izan ziren.

Ander Telleria



Lasterka batean:

- Aita, zergatik doaz korrika bizian gizon horiek?
- Lehengo ailegatzan denari saria ematen diotelako.
- Orduan, zergatik egiten dute gainerakoek ere korrika?



Zer esaten dio ipurmasail batek besteari?

- Ez zaitez marratik pasa!

Errugbi partidara ailegatu da lagun bat partida hasita zegoela zera galdetu du:

- Nola doaz?
- Husna.
- Nork sartu du lehenengo hutsa?

Irakasleak ikasle bati honela galdetu dio:

- Aizu, mutiko, zenbat hezur ditugu garezurrean?
- Ez dakit, irakasle, eta hori guztiak buruan ditudala.



Gizon bat jai-aretoko atezainarengana hurbildu zen.

- Aizu, hemen al da nagi eta alferren lehiaketa?
- Bai, jauna, sartu barrura.
- Ez, ez, sar nazala norbaitek.



Txisteak

Arrantzale batek galdetu zion laku inguruan bizi zen bati:

- Egin daiteke arrantzan hemen?

Bai, gizona, ba, erantzun zion.

- Ez da delitua izango, ezta?

- Delitua diozu? Bai zera! Miraria galanta!

Ikastolan irakasle batek esaten dio ikasle bati:

-Ea Mikel, zenbat da 2x2?

Eta Mikelek erantzuten dio:

-3, irakasle.

Orduan irakasleak:

-Zertarako dugu burua?

Eta Mikelek:

-Belarri biak banatzeko.

Olatz Mandiola

Aitak esaten dio Jaimitori:

-Jaimito, ekarri saltxitxak

harategitik, mesedez.

Baina Jaimitok ez zuen gogorik

eta, horregatik, komunera joan eta

pitilina moztu zuen.

-Tori aita, nik egindako saltxitxa.

-Pepito, esan 'o' asko dituen berba bat.

-Gooooooooooooooooo!

Nora Santos

Aitak semeari:

-Seme, seme, eskatu al diozu zerbait Olentzerori?

-Bai.

-Zer eskatu diozu ba?

-Olentzero urtean behin baino gehiagotan etortzea.

Aitor Zatika





Euskaldun bat, frantses bat eta alemaniar bat Eiffel dorreko puntan daude. Hirurak bertatik bota, eta alemaniarra eta frantsesa tortila egiten dira, baina euskalduna ez. Orduan, zera galdetzen diote euskaldunari:
 -Zergatik ez zara tortila egin?
 -Arrautzak goian laga ditudalako.

Aitor Zatika

Zein da foballarien santua?
 San Kadila.

Nola esaten da 'olla express' euskeraz?
 Gisasola

Ander Tximeno

Zer esaten dio harri batek beste bati?

Zeinen bizitza gogorra!

Andrea Alonso

-Kaixo, aho handia duen igela naiz. Eta zu or zara?

-Ni jirafa naiz.

-Eta zer jaten duzu?

-Zuhaitzetako hostoak.

-Bale.

-Kaixo, aho handia duen igela naiz. Eta zu nor zara?

-Ni lehoia naiz.

-Eta zer jaten duzu?

-Animalia handiak.

-Bale.

-Kaixo, aho handia duen igela naiz. Eta zu or zara?

-Ni krokodiloa naiz.

-Eta zer jaten duzu?

-Aho handia duten igelak.

-Nik ez dut ikusi bat ere ez.

Asier Hortelano



T xikihoroskopoa

ARIES



Konturatu gabe, amaitu da 2008 urtea. Egia esan, gauza asko egin dituzu eta ederki aprobe txatu duzu urtea. Orain, ea nolakoa izango den 2009.a.



TAURUS

Opariak eskatzen bikaina zara, baina zuk besteei zerbait oparitzen diezu? Ez daukazu zertan dirurik gastatu behar, detaile txiki bat nahikoa da!



GEMINIS

Ziur zaude Olentzerok ez dizula ikatza ekarriko, baina ni ez nitzake hain seguru egongo zu izango banintz. Gogoratzen urtean zehar egindako maltzurkeriak, ezta?



CANCER

Gabonak oso gustuko dituzu, baina ez opari edo horrelako gauzengatik, oporrak dituzulako baizik! Nahikoa lo egiteko aukera izango duzu egun horietan!



LEO

Errealistagoa izan eta ez eskatu ezinezko gauzarik Olentzerori. Bestela, opari gabe geratu zaitezke. Zeuk ikusi, egin beste zerrenda bat eta jasoko duzu nahi duzuna!



VIRGO

Ez zeniola Olentzeroren gutunari seilurik ipini? Ai ene! Lasai, seguru berak zure gutuna aurkitzen duela, baina hurrengoan argi go ibili!



LIBRA

Urte berriaren hasierarekin, amets batzuk beteko zaizkizu. Aspaldian espero zenuen mezu bat jasoko duzu Gabonetan eta jai zoriontsuak pasatuko dituzu.



SCORPIUS

Zer duzu nahiago: Gabon gaua edo Gabon zahar gaua? Lasai, ez erantzun orain, baina gauza bat: ez abestu asko, euriarekin Gabonak tristeagoak baitira.



SAGITARIUS

Gogoratzen iazko Gabonak? Hurak bai barreak! Ea aurten iaz bezain ondo pasatzen duzuen. Ahalegindu, behintzat, ahaleginduko zarete!



CAPRICORNIUS

Uda pasatu eta konturatuz gero, Gabonetan gaude jada! Bizkor pasatzen da denbora, ezta? Badakizu 2009. urtea badatorrela? Hain depistatua zarenez...



ACUARIUS

Nola ekarriko dizu Olentzerok itsasontzi bat? Nondik sartuko du, leihotik? Zuk eskatu, eskatu... baina ea Olentzerok zer pentsatzen duen. Gaixoa...




PISCIS

2008. urtea asko gustatu ez bazaizu, ez pentsa 2009.a askoz ere hobea izango denik. Gauzak gehiago baloratu eta bizitzaz gehiago disfrutatuko duzu, seguru!

WWW.EHU.ES/GORDAILUA/

Euskara gustuko baduzu hau da zure webgunea. Bertsoak gustuko badituzu hau da zure webgunea. Idazlanak gustuko badituzu hau da zure webgunea. Izan ere, euskal testu klasikoak eskaintzen dira web orrialde honetan, Euskal Herriko Unibertsitatearen ekimenez. Alde

batetik eresi, bertso eta kanten atala dago. Bertan duela mende batzuetako lanak aurki daitezke, gaur egunekoek gain, antzinako kantak ere abesteko. Idazleak eta idazlanak atalean, berriz, antzinako testuak aurki daitezke. Azkenik, kutxatila atala agertzen da. Hemen gutunak, idazkiak eta beste antzinako testu bitxi gehiago aurki daitezke. 20.000 bisitari baino gehiago izan ditut webgunean... izan zaitez zu hurrengo!



WWW.AQUARIUMSS.COM/EU

Seguru izan duzuela Donostiako akuariumaren berri. Ba, orain, Gipuzkoako hiriburura joan gabe ere, akuariumaz gozatzeko aukera izango duzu, etxetik mugitu barik! Donostiako akuariumaren gainean edozein gauza jakiteko tokia da hau. Azken orduko informazioa jaso

ahal izango duzu eta akuariumean dauden berritasunak zeintzuk diren jakin. Bestalde, Donostiara hurbildu nahi izanez gero, akuariumera nora joan azaltzen dizute. Itsas hondoko bizitza atalean, urpetan murgildu eta ur sakonetan bidaiatzeko aukera izango duzu animalia ezberdinak ezagutzuz. Pelikula interaktiboak ikusi daitezke, ordenagailurako irudiak jaitsi eta lagunei postal elektronikoak bidali. Hemen duzu aukera ezin hobea!



erreportajea

Olentzeroren etxea



Olentzerok bere etxea Urko mendian zuela pentsatzen genuen Eibarren, eta agian hala da, izan ere, etxe bat baino gehiago izango du. Horietariko bat, Mungiakoa, jendearentzat zabalik dago. Izenaduba Basoa izena dauka baserriak eta Olentzerok berak egiten die harrera bertara hurbiltzen direnei.

Landetxo Goikoa XVI. mendeko baserri bat da. Mungian dago, Bizkaian, eta garai hartako eraikin arkitektoniko bakarrenetakoa da. Lapur eta erasoengandik babesteko erabilia, gaur egun badu beste funtzio ezagun eta garrantzitsu bat: Olentzeroren etxea da.

Horrela da, Olentzero eta bere lagunak etxe magikoa. Egia da, baita ere, Eibarren beti entzun dela Olentzerok Urko mendian zuela baserria, bere bizilekua. Nork daki, pertsonaia mitologiko hau edozertarako gauza da, etxe bi eta gehiago izateko ere!

Jolas ezberdinak

Bere etxeko atea ireki ditu Olentzerok Mungian eta eskaintza zabala dago

bertan. Filmak, jokoak, taletterak eta beste hainbat gauzetaz gozatzeko beta luzatzen du Olentzerok, bere eskuzabaltasuna ez delako urteroko oparietan amaitzen.

Baserri kanpoan jolas ezberdinak daude. Pertsonaiak, ohiturak, kondairak... jolas bihurtzen dira Izenaduban. Harri artean jauzi eta Jentilen izena aurkitu ahal izango da; baita Mariren kobazuloa bisitatu ere, baina adi, haserretzen bada ekaitza eta



txingorra sortzen omen dituetala!; Tartalo ere han da eta baita haritza sakratua ere; baso laberintiko batean murgildu ahal izango da, garai bateko pizti, iratxo eta gaueko hamaika izakien artean; eta, azkenik, herensuge, ortzadar eta txondorrean nahi adina jostatzeko aukera izango da. Aspertzerik ez dago, beraz.

3D simulagailua

Jolasteko aukerak, hala ere, ez dira hor amaitzen. Izan ere, Mari Teiletakori

laguntzeko 3D simulagailu dago baserrian. Zein den Mari Teiletako? Ba, Euskal Herrian hortzatxo bat jaus-ten denean, bera da hortz hori jaso eta izar bihurtzen duena. Oraingoan, Marik umeen beharra dauka eta euren laguntza ezinbestekoa da.

Izenadubara joateko erretserba egin behar da, horretarako, 94 674 00 61 telefonora deitu edo olentzero@izenaduba.com helbidera idatzi daiteke. Prezioei dagokienez, 0 eta 2 urte bitarteko umeek ez dute ezer ordaindu behar Olentzeroren etxean sartzeko, 2 urtetik gorakoek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek 8.

Egin bisita Olentzerori, ea ikatza non gordetzen duen!



Txikinkesta

Zer eskatu detsazu Olentzerori?



**EIDER
SOBRON.**

8 urte

'Twister High School Musical' eskatu detsat nik, joku mitikua, baiña pelikula horrekin zerikusia dakana. Espero dot oparixa jasotzia, ondo portatu naizelako.

**MARINA
LAHIDALGA.**

8 urte

Motxilia eta estutxia eskatu detsadaz Olentzerori, baiña espero dot sorpresaren bat be jasotzia, hori bere esku dago.



Seguru gutunak aspalditik idatzita daguazala, baiña uste dozue Olentzerok eskatutakua ekarriko daguazala? Ondo portatu bazarie bikain, bestela badakizue: ikatza!

CELIA LINARES.

8 urte

Ez ditudt eskatutako guztia gogoratzen. 'Zein da zein EXTRA' jokua bai eskatu dot... eta sorpresa! Espero dot Olentzerok ekartzia...ez dakitt-ba!



JONATHAN CABERO.

7 urte

Gauza asko eskatu ditudt, karta luzia idatzi neban, holan, Olentzerok aukeratu biharko dau ekarri nahi destana. Beno, igual ikatza ekartzen desta!



Eskiatzera

Bazen behin, Esther eta Jon deitzen ziren ume batzuk. Oso lagun onak ziren. Eskailera berean bizi ziren, erai-kin berean, Norvegian.

Estherren ama Amaia deitzen zen eta aita Jaime; bananduta zeuden. Jonen ama Alicia deitzen zen ete aita Paco.

Estherren amak eta Jonen amak bidaia antolatu zuten eskiatzera joateko eta umeek ez zekiten ezer: beraiantzat sorpresa izango zen, ezusteko galanta!

Trena hartzeko, 07.30etan egon behar zuten geltokian. Bertara heltzean, Esther galdu egin zen,

orduan, poliziarri deitzea pentsatu zuen tren-geltokia bilatzeko. Azkenean, susto txiki bat izan zen, izan ere, kafetegian zegoen itxaroten Esther. Ondoren, etxera joan ziren denak.

Eta hau hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila amañako plazan.

Irene Garrido



Kirolak eibarren

FOBALLA

Kamiseta, praka motzak, galtza eta botak jantzi, eta zelaira! Anexoak 200 umetik gora jasotzen ditu asteburuoro (orain benjaminak eta oporren ostean alebinak) foballean egiteko gogoarekin, golak sartzeko desioarekin.



Esaten denez, foballa da 'kirol erregea'. Mundu osoan gehien praktikatzen den kirola da, baita Eibarren ere. Eneko Garcia Multikiroletako koordinatzailearen berbetan, "herriko umeengan arrakasta handia du foballak".

Gaur egun, eta urtarri-laren 17ra arte 8-10 urte bitarteko umeak ari dira foballean. 256 ume zehatzago esanda. Habei alebinak hartuko diete lekukoak Ipuruako anexoan

martxoa eta apirilean.

Astean birritan entrenatzen dute Eibarko ikasketxe ezberdinetako ikasleek foballean euren ikasketxeetan, Multikiroletako sei begiraleen agindupean. Horrela, foballean ahalik eta ondoen nola egin ikasten saiatzen dira umeak astean zehar. "Abilezia orokorrak lantzen ditugu (pasea, jaurtiketa, driblingak...) era analitikoan eta, ondoren, hori guztia partiduetan aplikatzea da helburua",

Eneko Garciaren berbetan.

"Kiroltasuna nagusi"

Asteburuotako partiduetan Eibar foball taldeko entrenatzaileak egoten dira umeak zelaietan kokatzen eta aginduak ematen. Helburua umeek foballa ezagutu, landu eta ondo pasatzea bada ere, nork daki, agian etorkizunean Eibarko taldean jokatzeko aukerak izan ditzakete.

Gainera, talde ezberdinek lortutako emaitzek garrantzia handirik ez badute ere, "euren artean pike batzuk izaten dituzte", dio Garciak. Hala ere, "kiroltasuna da nagusi", bere berbetan.



Multikirolak

Foball zale amorratuak badira ere, gustuko ditu Multikiroletan egindako kirol guztiak La Salle ikastetxeko bikote honek. Ez dira, hala ere, hasiberriak, urteak eman dituztelako Multikiroletan. Orain, gogotsu ari dira eskubaloian!

-Zergatik erabaki zenuten Multikiroletan izena ematea?

(Juan): Niri kirola egitea asko gustatzen zait, horrela, uste dut

Multikiroletan parte hartzea kirola praktikatzeko oso aukera ona da.

(Laura): Nik kirola egitea gustatzen zaidalako eman nuen izena, besterik ez.

-Aurreko urteetan aritu zarete

Multikiroletan?

(Biak): Bai.

(J): Azken urte bietan hartu du parte nik Multikiroletan.

(L): Niretzat hau bigarren urtea da.

-Eta aurtengoa, zelako

esperientzia ari da izaten?

(Biak): Oso ondo dago!

(J): Orain arte pilotan, judoan eta orain eskubaloian aritu naiz, eta oso gustura, benetan.

(L): Nik,



eskubaloiaz gain, atletismoa eta aerobika egin ditut.

-Kurtso amaieraraino zenbat kirola falta zaizkizue praktikatzeko?

(Biak): Kirol bi falta zaizkigu oraindik:





**Laura Gragera
eta Juan Solozabal:**

**“Talde–kirolak egitea
nahiago ditugu”**

foballa eta errugbia.

**-Gogotsu
zaudete kirol bi
horien aurrean?**

(J): Bai, asko
gustatzen zaizkidan
kirolak dira.

(L): Beno, bai,
nahikoa gogo dau-
kat horiek egiteko.



**-Zenbat aldiz
entrenatzen
duzue astean?**

(J): Berak birritan
eta nik behin. Izan
ere, ingelesera joan
behar naiz egun
batean, beraz,
ezinezkoa zait
entrenatzea.

**-Zer duzue
nahiago: taldeko
kirolak ala
bakarkakoak?**

(Biak):
Taldekakoak askoz
ere hobeto daude.

(L): Niri gehiago
gustatzen zait
lagunekin jokatzeara.

Gainera, antolatze-
ko eta abar askoz ere
hobea da taldeko
ibiltzea.

(J): Hobeto pasatzen
duzu taldeko.

**-Egiten dituzuen
kiroletatik
aparte, zein
gustatuko
litzaizueke
praktikatzea?**


(J): Saskibaloia.

Hala ere, niri
gehiago gustatzen
zaizkit foballa eta
eskubaloia.

(L): Bai, niri ere foba-
lla da gehien gusta-
tzen zaidan kirola.




URPEKO KOADROA



1.- Zetazko paper urdin ilun eta argietatik zati batzuk eskuekin moztu eta porexpan erretilu itsatsi itzazu pintzelarekin, latexa urarekin nahastu ondoren.



2.- Beste porexpan erretiluan 3 arrain ezberdin marraztu, bere silueta puntzoiarekin pasatu eta moztu itzazu.




MATERIALA:

- Porexpan erretila
- Zetazko paper urdin iluna eta urdin argia.
- Latexa.
- Pintzelak.
- Guraizeak.
- Kolore ezberdinetako margoak.
- Errotulagailua.
- Puntzoia.
- Zetx borobilak.



3.- Moztutako 3 arrainak margotu eta apaindu, kolore eta marrazki ezberdinekin. Bat horia izan daiteke, bestea berdea eta beste laranja, adibidez.





4.- Zotz bat sartu arrain bakoitzari atzeko aldean.



5.- Kokatu arrainak forratutako erretiluan zuri gehien gustatzen zaizun moduan.



AHOLKUAK:
3 arrain egin beharrean,
figura handi bakar bat
egin dezakezu,
olagarroa adibidez, eta
forratutako erretiluan
sartu.



MARI TTIPIA DELIKAKO ARROILAN

ABENTURA ZALE AMORRATUA DA MARI TTIPIA. EUSKAL HERRIKO TXOKO EZBERDINAK BISITATZEN DITU ABENTURA BILA ETA, ORAINGOAN, ARABAKO DELIKA ARROILARAINO JOAN DA TXANGO-GORRITXO, ALIZIA HERRIALDE MIRESGARRIKOAREKIN ETA EDURNE ZURIREKIN. PAISAIA TXUNDIGARRIAK IKUSI, PERTSONAIA MIRESGARRIAK EZAGUTU ETA ANIMALIA BASATIENEKIN EGINGO DUTE TOPO ABENTURA HONETAN.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

DAVID ETA MAITAGARRIAK

BERE LEHENGUSUEN ETXERA IRISTEAN, MARGARITAK MAITAGARRIEKIKO LILURA KUTSATZEN DIE HAUEI, DAVID-I IZAN EZIK, HAU KONBENTZITURIK BAITAGO EZ DIRELA EXISTITZEN. HAINBESTE MAITAGARRIK URDURI JARTZEN DUTE. AUZOKO ANDRE BATEN BILOBAREN BISITAK UMORE TXARREZ JARTZEN DU DAVID. BAINA, AGIAN GAUZAK EZ DIRA IZANGO ESPERO DITUEN BEZALA.



ALDARTE ONEKO IPUINAK

EUSKALDUNON ARTEAN ZENBAIT HERRI-IPUINEN HAINBAT ALDAERA DESBERDIN AURKI DAITEZKE, TOKIAN TOKIKO ÑABARDUREZ BEREIZTURIK. GUREAN, BESTALDE, IDATZIZ JASOTZEKO OHITURA OSO BERANTIARRA IZAN DUGUNEZ, DESBERDINTASUN HORIEK AREAGOTU BAINO EZ DIRA EGITEN. AHOZ TRANSMITITZEAREN KONTUAK IPUIN MOTA BI NAHASTERA GARAMATZA: IPUIN TRADIZIONALAK ETA HERRI-IPUINAK.





TTANTTO

TTANTTO PILOTA BAT DA, ESKUZ JOKATZEKO PILOTA. GOZOETAN BIZI DA ETA BERTAKO PILOTALEKUAN IGAROTZEN DITU ORDU GEHIENAK. PILOTA PARTIDU ASKO DARAMATZA BIZKARREAN, ETA ZAHARTZEN ERE ARI DA . HALA ERE, ORAINDIK OSO ONGI MOLDATZEN DA. BAINA BAT-BATEAN, ZERBAITEN BELDUR DA TTANTTO ETA, OSO TRISTE DAGO. ZERGATIK OTE? DENA DELA, HONA DATOR LAGUNTZA ESKE. LAGUNDUKO AL DIOZU? HORRELA BADA, EGIN EZAZU ESKATZEN DIZUNA, ETA SALBATUKO DUZU.

EIBARKO LIBURUDENDETAN SALGAI



JOHANES, BARGOTAKO AZTIA

HARRY POTTER SORTU BAINO ASKOZ LEHENAGO AZTI ASKO IGARO ZEN MAGIA ESKOLETATIK, ETA EDABE ETA UKENDU MAGIKOAK PRESTATZEKO ERREZETA GUZTIAK IKASI ZITUZTEN. GUREAN, JOHANES, BARGOTAKO AZTIA, IZAN ZEN EZAGUNENETARIKOA. PATRIKAN, ORRATZONTZIA ERAMATEN ZUEN BETI, BEHAR IZANEZ GERO IREKI ETA GORDETAKO GALTZAGORRIAK LANEAN JARTZEKO.



LEONARDO DA VINCI ASMATZAILEA

LEONARDO EDOZER GAUZA EGITEKO GAI ZEN. GIZAIGEL URPEKARIAK ETA HELIKOPTEROAK ASMATU OSTEAN, GIOCONDA MARGOTZEARI EKITEN ZION, ETA ASPERTZEN ZENEAN, ERRENAZIMENDUKO PARRANDA SONATU BAT ANTOLATZEN ZUEN. ETA DENA ONDO ATERATZEN ZITZAION. HORI BAI, ZURRUNBILO HORREN ERDIAN, ZAILA EGITEN ZITZAION KONTZENTRATZEA... NORMALA! ESKERRAK OBJEKTU FANTASTIKOEN BILDUMA ZORAGARRIA DISEINATZKO DENBORA ERE IZAN ZUELA GURE LEONARDOK.

Pedro Alfonso Vilas, aktorea

Idolo berriak sortu dira Euskal Herriko gaztetxoan artean eta horietako bat Pedro Alfonso Vilas 18 urteko eibartarra da. 'Go!azen' musikalean parte hartu du Pedrok eta orain horren ondorioak jasaten ditu: ospea. Poz-pozik dago bera esperientzia honekin. Izar berri bat jaio da.

-Nola sortu zitzaizun filme musikal honetan parte hartzeko aukera?

Kasting batera aurkeztu nintzen, eta horrela.

-Eta nola jakin zenuen kastingaren berri?

Josu Mugikak esan zidan kasting bat zegoela, filme musikal batean aktore izateko. Dantza irakaslea da Josu Eibarren, eta bera denez filmeko koreografoa, ba honen berri eman zidan eta kastingera joan nintzen.

-Zein paper egiten duzu 'Go!azen'-en?

Ni Hector naiz, mutil immigrantea, errepikatzailea, zintzoa, lasaia, isila eta arazoetan sartzea ekiditen duena, beka bat jokoan dagoelako. Argia da, beraz, gauza askotaz konturatzen da, baina, hala ere, ez da arazoetan sartzen.

-Zerikusia dauka Hectorrek zurekin?

Bai, asko. Antza handia dago Hector eta nire artean. Ni, bera bezala, oso lasaia naiz eta arazoak ekiditen ditut ahal den heinean. Nire munduan bizi naiz eta, horrela, oso ondo nago.

-Nolakoa izan da grabaketa?

Egia esan, oso gogorra izan zen.



Egunean 11 ordu grabatzen genuen, astelehenetik barixakura, baina beno, oso esperientzia polita izan zen, oso polita.

-Noiz grabatu zenuten?

Uztailean hasi eta abuztuaren 8an amaitu genuen grabazioa.

-Non izan zen?

Azpeitiako moja komentu batean grabatu genuen.

-Zer suposatu du zuretzat filme honetan parte hartzeak?

Nik ez nuen sinisten filme batean parte hartzen ari nintzela, baina beno, Hectorren pertsonaia egiteko aukeratu baninduten, zerbaitengatik izango zen. Hala ere, nire bizitza berdin-berdin egiten jarraitzen dut, ez da ezertan aldatu.

-Filmea ikusi duzu?

Bai. Aurkezpen-gala egin zen eta bertan ikusi nuen.

- Orain, filmearekin, fama hartuko duzu...

Famaren kontu horrek beldur piska bat ematen dit, modu batean esatearren. Hala ere, nire bizitzan ez da aldaketarik izan, beraz, famaren

kontu horiek ez zaizkit axola.

-Kaletik zoazenean ezagutzen zaituzte?

Bai, "hor doa telebistakoa", esaten dute. Betidanik ezagutzen naute eta orain filmean agertu naizenez, ba tira.

-Musikalean dantza egiten duzue. Trebea zara hortan?

Bai, beno, nik 'brake-dance' egiten dut lagunekin eta abar, beraz, nahiko ondo moldatzen naiz. Hala ere, dantza pausu batzuk ikasi behar izan ditut musikalerako, talde-koreografiak egiten genituelako.

-Hector alde batera utzita, kontaiguzu: zein da Pedro Alfonso Vilas?

Hectorren antza handia daukat. Ni ere mutil inmigrantea naiz, izan ere, duela 6 urte etorri nintzen Dominikar Errepublikatik Eibarrera guraso eta anaiarekin. Duela urte 2 eta erditik 'brake-dance' egiten dihardut eta ez dakit zer gehiago esan... gida baimena lortzeko azterketa teorikoa gaintitu berri dut (barreak).

Bertsotan lehiaketa

BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN, IKASTURTE HONETAN LEHIAKETA BEREZIA IZANGO DUGU. HEMEN DITUZUEN BERTSOAK BEHAR DEN MODUAN BETE, ASMATU ZEIN DEN BEHARREZKO OINA. BIDALI TXIKITTO!RI ETA ZOZKETA EGINGO DUGU PARTE HARTZEN DUZUENEN ARTEAN.

HILABETEKO IRABAZLEA



IRATXE LOIDI




EIBARKO ZEIN LEKUTAN GAUDE?

Eibar erdialdean dagoen tokia, bertatik pasatzen da bai jende guztia.

Lorategi politik eta kolunpioak, futboleak jolasten neska mutikoak.

Otsailaren hiruan guztiok bertara, ta gure opilekin argazkiak atara.



Izena:

Telefono zenbakia:

Yraolagoitia
liburudenda



Bidebarrieta 20 943 20 16 17

ABESTU BERTSO HAUEK

GABONAK

Abendu amaieran
gureztat oporrak,
atzean utziz garai
luze ta gogorak.

Hemen denok nahi dugu
elurra egitea,
elur panpinak egin
bolak botatzea.

Ta olentzero dator
urtero bezala,
nik eskatu nahi diot
pelota ta pala.

Familia guztia
elkartu ta afaldu,
gaua ondo pasatu
ta gero gosaldu.

Hiruhilabete honetan
lan asko egin dugu,
olentzerok opari
asko ekartzen digu.

Ondo ondo pasatu
aurtengo gabonak,
Urte berri on denoi
eta zorionak!

Su gabeko eguzkia

<p>Su gabeko eguzkia ilargiarekin elkartu zen</p>	<p>Ilargiak aholkuk ematen dizkio eguzki- ari.</p>
<p>Ilargi, baal dankezu sariak</p> <p>Ez ez dant.</p>	<p>Ados nago. Deia horrek</p> <p>Ari zu eta Lur planetara gader ba zara?</p>
<p>Eguzkia Lur planetara gersten da, baina sariak gabe bueltatzen da.</p>	<p>Ilargiak espaziontz bat ikusten du.</p>
<p>Handi egi a nariz eta beldura didate.</p>	<p>Haral Begite! bat!!! Espazionte!</p>
<p>Espaziontzirik astronau- ta bat intetzen da eta ilargiaren gainean furtan da.</p>	<p>Astronautak mixela eguzkiari ematen dio eta eguzkiak bere buruare su eta em- tea dio.</p>
<p>Ez al dantkezu sariak?</p> <p>Ez, mixelak dant.</p>	<p>Azerena sum dantkezu?</p> <p>Ez, ez dant!</p>